



25 urte zugan sinesten | 25 años creyendo en ti

NAFARROAKO GIZAKIA HELBURU FUNDAZIOAREN 25 URTE

PRENTSA DOSSIERRA

2016ko martxoaren 9a, Iruñea



MAHAIKIDEAK, PARTE-HARTZE ORDENA ETA EDUKIAK

1. On José María Jiménez Nespereira- Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko Lehendakaria

Prentsaurrekoaren aurkezpena egingo du, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren lanen hasieraren 25. urteurrenaren testuinguruan, eta 25. urteurrenaren bideoaren sarrera egingo du.

2. On Alfonso Arana Marquina. Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren Zuzendaria. Entitateari dagozkion laguntza jarduerari buruzko datuak emango ditu eta 2015 urteko ondorioak esanguratsuenak eta 25 urtetako funtzionamenduari dagozkionak.

PRENTSAURREKOAREN GARAPENA

1. On José María Jiménez Nespereira- Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko Lehendakaria

Egun on guztioi:

Lehenik eta behin deialdi honetara etortzeagatik eskerrak eman nahi dizkizuet, zeinarekin nafarroako jendartea alkohol eta drogekin arazoak izan dituzten pertsoneri zaintza zerbitzuen hasieraren 25 urte hauen ospakizunaren partaide egin nahi zaituztegun.

Pasa den otsailaren 7an, Harrera programaren hasierak 25 urte bete zituen, Iruñeako Oblaten eraikinean. 1991. urtea zen eta ordutik hona egoera nabarmen aldatu da. Zaintza eskatzen diguten pertsonen perfila errotik aldatu da, drogazaletasun fenomenoari buruz gehiago dakigu eta laguntza sarea egonkortu egin da, nahiz eta garai hartan hari fin bat baino ez zen. Denbora honetan guztian gure entitateak aldaketa garrantzitsuak izan ditu, Komunitate Terapeutikoan lan egiteko modu eta zerbitzu berriei: SUSPERTU Programa, nerabeei zuzendua (1997an), "Aldatu" Arreta Zentru Anbulatorioa (1998an) eta orain gutxi sortutako, Lan Eremuko Esku-hartze Programa.

25 urte hauen funtzionamenduaren balantzea egin nahi dugu prentsaurreko honetan eta aldi berean, Nafarroako Gizakia Helburu Fundaziotik gure komunitatean drogazaletasun fenomenoarekiko beste ikuspuntu bat eman. 2015eko memoriaren datu esanguratsuenen aurkezpenarekin bukatuko dugu. Azkenik, 2016an gure urteurrena ospatzeko burutuko diren ekitaldien berri eman nahi dizuegu.

Bukatzeko, eta On Alfonso Aranari hitza eman aurretik, gure 25 urteurrenaren omenez egindako bideoa proiektatuko dugu.

25. urteurrenaren oroitzapenezko bideoa.

2. On Alfonso Arana Marquina. Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren Zuzendaria.

25 urtetako balantzea; Programak eta arreta kopuruak.


25 urte hauetan zehar, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioan gure tratamendu programa ezberdinetan 6.517 onarpen egin dira, 4.457 historia klinikori (pertsoneri) dagozkienak. Zenbaki



kopuru hauei artatutako pertsonen senide eta gertukoena gehitu behar dizkiegu, garrantzia handiako elementua gure esku-hartze proposamenean.


1997 arte, Fundazioak eskeintzen zuen tratamendu aukera bakarra Gizakia Helburu Programa zen, hasierako fase batean eguneko zentru gisa (Harrera), bigarren fasean egoitza, Komunitate Terapeutiko eredupean, eta hirugarrena birgizartratzea. 1997an, nerabe zein hauen familiei zuzendutako Suspertu Programa sortu zen eta 1998an, "Aldatu" tratamendu programa, erregimen ambulatorioan. Gainera, 2007an Tuteran eta Erriberako Mendekotasunen Arreten Fundazioa sortu zen. Tuteran zerbitzuen irekiera emanez, horrela, Nafarroako zonalde honetan tratamenduak gertukoak eta eskuragarriagoak eginez.

2015ean gure programa ezderdinetan 910 kasu artatu ditugu. Honi dagokionez, guztira artatutako pertsona kopuruak gora egin du 2010 arte, azken bost urteotan egonkortuz eta bi inflexio puntu nabarituz, bata, 1997an, Suspertu eta Aldatu Programen hasierarekin eta bestea, Tuterako zerbitzuen hasierarekin.



Hemendik aurrera, soilik mendekotasun arazoak dituzten pertsona helduen tratamenduen programen datuei egingo diegu erreferentzia (GIZAKIA HELBURUREN Komunitate Terapeutikoa eta ALDATU Mendekotasunen Arreta Zentru Ambulatorioa)

- 1600 pertsona (1619) baino gehiagok jaso dute tratamendua Gizakia Helbururen Komunitate Terapeutikoan, eta gutxi batzuk gehiago (1.720) "Aldatu" Arreta Ambulatorioan.
- Bi programetan **1.459 alta terapeutiko** eman dira.




ESKAERA ERAGITEN DUEN DROGA

Arreta eskatzen duten pertsonen perfilaren garapenak isladatzen du Nafarroan drogazaletasun fenomenoaren gainean emandako bilakaera. Arreta eskaera sustatzen duten sustantzia-arazo nagusiei dagokienez, honako datu eta ondorioak azpimarra ditzakegu.

Heroína, Alkohol eta kokaina sustantzia-arazo nagusi gisa.


- 2015ean Kokaina kontsumoagatik (kasuen %34) izan dira tratamendu eskaera gehienak Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioan, gertutik Alkohola (%28,7) eta urrunago Anfetaminak (%13,8), Kalamua (%12,3), Heroína (%8,0). Ketamina, psikofarmakoak edo MDMA (extasisa) moduko metanfetamina kontsumoagatik ere izan dira eskaera gutxi batzuk.
- Goraka dihardu Kalamuaren kontsumoagatik sortutako eskaerak, kasuen %12,3 suposatzen du. Bestalde, gure Komunitate Terapeutikoan Heroína droga nagusi bezala kontsumitzeagatik artatutako pertsonen kopuruak ere gora egin du.
- Egoera honek 1991ekoarekin alderatuz errealitate erabat desberdina islatzen du, non pertsonen %90 heroína kontsumoagatik zeuden NGHFan tratamenduan. Nahiz eta arestian aipatutako gorakada kontuan izan, egun heroinak %8 suposatzen du, eta, orohar, urte askotan kontsumitutako izan duten pertsonen historia dela aipatu beharra dago, aurretik tratamendua jasotakoak eta metadona tratamendu farmakologikodunak. Bakan batzuk dira heroína kontsumoagatik tratamenduan onartutako pertsona berriak.



Gauza bat da kontatzen dugutena eta beste bat ordea, guk aurkitzen duguna.

5

- Programen onuradunek onartutako sustantzia nagusien kontsumoari dagozkienak direla azpimarratu beharra dago, nahiz eta kasu gehienetan beste sustantzia batzuekin batera emandako kontsumoa izan. Kasu gehienetan modu independentean gehiegizko erabilera edo kasu bakoitzean mendekotasun diagnosi irizpideei dagozkie.
- Horrela, adibidez, oso ohikoa da kokaina kontsumitzaileen artean alkohola eta kalamua ere kontsumitzea, askotan, portzentaia handi batean, sustantzia hauetariko batzuen gehiegizko erabilera edo mendekotasun diagnosi klinikoan kasuak aurkituz, eta zenbaitetan baita bien kontsumo bateratua ere.
- Pertsonen eskaera zehatzei kasu egin beharrean, **profesionalok pertsona hauek artatzean aurkitzen dugunari** kasu eginez gero, Osasunaren Mundu Erakundearen diagnosi irizpideei dagokionez, sustantzia-arazo banaketa honako grafika honek adierazten duena litzateke.



- Ikus daiteke tratamendua eskatzen duten pertsonen bi herenek alkoholarekin arazoak dituztela, eta erdiak baino gehiagok kokainarekin, ia erdiak kalamuarekin eta heren batek anfetaminekin. Badirudi argi dagoela alkohol eta kalamuaren kasuan arazoaren kontzientzia askoz txikiagoa dela.

Emakumeen artean alkohol eta psikofarmakoak; gizonen artean sustantzia bizigarri gehiago.

- Eskaera sustatzen duen sustantzia nagusia desberdina da generoaren arabera. Emakumeei dagokienez, bi heren alkohol kontsumoarengatik eta gizonen artean aldiz, ohikoagoa da kokainarengatik jasotzea tratamendua.
- Beste noizbait aipatu bezala, bakarrik edaten duten emakume asko dagoen pertzepzioak kezkatzen gaitu, ezkutuka kontsumitzen dutenak. Gure kasuan ikus dezakegun bezala, beranduago iristen dira tratamendura eta pausua ematen dutenean kalteak handiagoak izaten dira.
- **Psikofarmakoen** gehiegizko erabilera ere emakumeei dagokie. Aurkikuntza honek bat egiten du jendarte zabalari egindako droga kontsumoari buruzko inkestekin, zeintzuek aditzera ematen duten sustantzia hauek gehienbat emakumeek kontsumitzen dituztela.

6


PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA: adin gehiago eta zehaztapen soziala

- 2015ean artatutako pertsonen adinen batzbestekoa 37,7 urtekoa izan zen (36,9 gizonak eta 40,8 emakumeak). 1991ean ordea, batzbesteko adina pixka bat baxuagoa zen (28 urte). Adinean emandako igoera honekin batera, seme-alabak dituzten pertsona kopuruak ere gora egin du. 2015ean %52,2.
- **Generoa:** 2015ean tratamendu eskaeren %75,5 gizonari zegokien eta %24,5 emakumei. 25 urte hauetan zehar proportzioa ez da asko aldatu, baina azpimarratzekoa da arestian aipatutako datu bereizgarri hori, emakumeen artean kasuen bi herenak du alkohol kontsumoa droga nagusi.
- **Okupazioa:** 2015ean sartu aurretik tratamendua hasi zuten pertsonen %46,5 langabezian zeuden, datu bajuxeagoa beste urte batzuekin alderatuz gero, dudarik gabe, jendartearen joeraren isla. Langabezia tasa altuak tratamenduari dagokionez

zailtasun garrantzitsua suposatzen du, pertsonen birgizarteratze prozesuak zailtzen baititu, zeintzuek prozesua bukatuta lana topatzen ez duten. Zentzu honetan, azken bi urteotan NGHFan tratamenduan dauden pertsonentzako lan-insertzio programa espezifikoa lantzen ari gara.

- **Ikasketa maila:** 2015ean pertsonen %49k zuen bigarren hezkuntzako ikasketak bukatuta eta soilik %13k ez zuten lortu onarriko hezkuntza graduatu titulua edo bigarren hezkuntzako. Datu hau ez dator bat 1991eko errealitatearekin, zeinetan derrigorrezko hezkuntzan graduatu ez ziren onuradunen portzentaia %48 zen.
- **Betetzeke edo betetzen ari diren auzi judizialak:** 2015ean Nafarroako Gizakia Helburun tratamendu eskaera egin zuten %42,7k ez zuen auzi judizialik betetzeke eta ez ziren zigorrik betetzen ari. Portzentaia honek azken 5 urteotan behera egin duen arren, 90. hamarkadaren datuetatik urrun dago, non auzi penalik ez zuen pertsonen portzentaia %30 baino ez zen.
- **Osasun egoera:** Heroinagatik egindako tratamendu eskaeren gainbeherak eta droga nagusi gisa sustantzia bizigarrien eta alkoholaren nagusitasunak, gure zerbitzuaren erabiltzaileen osasun egoera erabat aldatu dute.

Zentzu honetan, esanguratsua da gaixotasun infekziosoen presentziaren beherakada tratamendu onarpenen artean. Oraindik ere jendartearen imajinarioan drogaren kontsumoarekin harremanduta dauden GIBa eta C Hepatitisaren nagusitasunak behera egin du nabarmen. Lehen gure erabiltzaileen erdiari eragiten zioten aipatu gaixotasunek.



LANKIDETZA PLANA ENPRESEKIN

Azken 3 urtetako **Lan Esparruko Parte-hartze Planaren** funtzionamenduaren berri eman nahiko genuke. Epe honetan lan esparruko parte-hartze planak diseinatzen eta garatzen aritu gara Nafarroako enpresa ezberdinekin batera.

Lan esparruan alkoholak eta beste droga batzuen kontsumoak eragin handia dutela baieztatzen duten ikerketa ugari dago, bai langileen segurtasun aldetik, bai ekoizpen aldetik: lan istripuetan



inplikazio zuzena ala ez, lanera ez agertzearen igoera, laneko baja garestiagoak, harremana diziiplina-espedienteekin, errendimendu eskasa, edo lan giro txarra.

Gure entitateak uste du arazo hauei irtenbidea emateko behar-beharrezkoak direla prebentzio eta interbentzio planak kaltetutako pertsonekin, enpresaren zuzendaritza eta langileen arteko adostasuna eta parte-hartzea oinarri izango dutenak. Hartara, "guztiok garaile" izan gaitezkeela sinestuta eta drogazaletasuna osasun arazo bat izango balitz bezala jorratuz. Honengatik guztiarengatik, enpresak plan honekin bat egin dezaten gonbidatu nahi ditugu, gurekin harremanetan jarriz (empresas@proyctohombrenavarra.org).

DATU EKONOMIKOAK

- 2015ean Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak 1.707.576,21€ko gastuak izan ditu eta 1.691.621,41€ko irabaziak, hau da, 15.954 €ko defizita.
- Gardentasunarekiko konpromezua dela eta, gure entitateak 1998-2002 urte bitartean urteko kontuen azterketen txostenak aurkeztu zituen eta 2003tik etenik izan ez duen kanpoko kontu-ikuskapenak egiten dizkie. Berauetatik lortutako ondorioak gure web orrian ikusgai ditugu.
- .
- Atal honen bukaeran gure atentzio zerbitzuen mantenurako diru iturriei dagokien grafika jasota dago.
- .
- Diru iturriei dagokionez, ekitaldi hau probestu nahi dugu gure historian zehar Nafarroako Gobernuari bene-benetan eskertzeko, departamendu ezberdinetatik, urte hauetan guztietan eskeinitako elkarlana eta konfidantza. Egun, Nafarroako Gobernuak gure diru-sarreraren %55 ematen du, batez ere Osasunbidearekin egindako Elkarlan Hitzarmenaren bitartez.
- Nabarmenak dira, kopuruari dagokionez, zerbitzuen onuradunek edo haien senide edo gertukoek egindako diru-sarrerak. Haien ahalegina ere publikoki goraiatu nahi dugu, egun diru-sarreraren %23 suposatzen baitu.
- Azkenik, ekitaldi hau probestu nahi dugu bi entitatek egindako ekapena eskertzeko:
 - o Modu bateratuan Nafarroako kutxa Fundazioa eta La Caixa Fundazioa, azken hiru urteotan guretzat horren garantzitsuak diren zerbitzuetan laguntzeagatik. Esaterako, Harrera zerbitzuak, Komunitate Terapeutikoan sartzeko prestaketa edota Iruñeako presondegian eginiko interbentzioa, ordura arte finantzatu gabeak.
 - o Eta nola ez, Iruñeako Caritas Diocesana, Gizakia Helburu Fundazioaren sustatzaile eta honen patronatuko kide orain urte gutxi arte. Egun laguntzen jarraitzen du Lizarrako Komunitate Terapeutikoaren egoitza erabiltzen utziz.



	DONATIVOS PARTICULARES	TALLERES PREVENCIÓN	AYUNTAMIENTO PAMPLONA	OTROS AYUNTAMIENTOS	
	3%	1%	1%	0,6%	
	DONATIVOS EN ESPECIE		VARIOS		
	1%		1%		
	CARITAS				
	7%				
					SNS COMUNIDAD
					40%
	USUARIOS				
	23%				
	CAJA LABORAL				
	0,6%				
	CAJA RURAL				
	1%				
					SNS ALDATU
		FUNDACION CAN			6%
		6%		SNS SUSPERTU	
	OBRA SOCIAL LA CAIXA	POLITICAS SOCIALES	PLAN FORAL	5%	
	2%	3%	2%		

GIZA TALDEA

Hitzaurrean aipatu bezala, Nafarroako Gizakia Helburu Giza Taldea diziplina anitzeko 40 lagunek osatua da.

Gainera, lan mota asko egiten dituzten 65 pertsona boluntarioren lan ordainezina azpimarratu nahi dugu: telefono arreta, harrera, seniderik ez duten pertsonen laguntza, erosketak, hezkuntza ekintzen antolaketa, aisialdikoak, etab. Hemendik pertsona hauek egindako lana eskertu nahi dugu eta era berean, boluntarioria lana egin nahi duten pertsona horiek guztiak gurekin harremanetan jar daitezzen animatu.

Azkenik, gure Patronatuko Fundazioa 7 lagunek osatzen dute, zeintzuek irabazi asmorik gabe eta modu solidarioan haien izen ona eta gure helburuaren aldeko lana eskeintzen duten. Hemendik gure eskerrik onena.

ERRONKAK ETA ETORKIZUNEN PERSPEKTIBA: Komunitate Terapeutiko berria eta apostu jolasak

Etorkizun hurbilerako bi erronka nagusi aipatu nahi dugu:

- Lehenik, Zailtasunak gainditu gure Komunitate Terapeutiko berria eraikitzeko. Nafarroako Gobernuak aurrez sinatutako lanen geldiera aurrekontu ezintasunagatik eta Nafarroako Parlamentuak 2014ko maiatzeko Ebazpenak onartutakoaren ondoren, zeinean Nafarroako Gobernuak estutu egiten zuen " egoitza berri hau eraikitzeko egutegi berri bat planifikatzeko



eta berau bete ahal izateko finanziaio bideak aurkitzeko". Aurrera jarraitzen dugu arazoari irtenbidea bilatzeko. 2015ean Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialen Komisioaren aurrean agertu gara eta Komunitate Terapeutikoaren Eskubide Sozialen Komisioaren bisita jaso dugu. Egun, irtenbide bila dihardugu.

- Bigarrenik, jokuarekin arazoak dituzten pertsona gazteak daudela egiaztatu. Jokuarekiko mendekotasunaren panorama aldatuz doa, eta pertsona gazteen presentziaren sententzioak larritzen gaitu, zeintzuek kirol apustuekin kontrol arazoak dituzten. Azken urte honetan gure errekursoetan egoera honetan dauden pertsonak artatzen hasi gara (gazte eta heldu) esku-hartze programa zehatz baten bitartez.

25. URTEURRENAREN OSPAKIUNAREN EKITALDIAK

Azkenik, Nafarroako Gizakia Helbururen 25 urte hauek ospatzeko aurreikusiak ditugun ekintzen berri eman nahi dugu. Bertan dituzue labur-labur:

- Martxoaren 15ean Civicanen Nafarroako Gizakia Helbururi buruzko 25 urte hauen erakusketaren inaugurazioa izango da. Erakusketa honek urte osoan zehar Nafarroako udalerrri zenbait bisitatuko du (Tuterakoa, jada, konfirmatuta dago, apirilaren 11tik 15era)
- **Maiatzaren 15ean**, jai-giroan, bi ekitaldi paralelo izango ditugu. Batetik, **Ibilaldi Osasungarria Argatik**, Ugartetik abiatu eta Gaztelu Plazaraino. Ibilbidean zehar jai eta jolas-jarduerak izango ditu. Aldi berean, Iruñea Erdigunean **Herri Lasterketa** bat burutuko da, **Club Atlético Hiru-Herrik** lagunduta. Hasi eta buka Gaztelu Plazan, zeinak Argako ibilaldiko partaideekin bat egingo duen.
- **Maiatzaren 19an**, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean, profesionalei zuzendutako **Jardunaldi Teknikoak** burutuko ditugu, bertan drogazaletasunen interbentzioan adituak diren hainbat pertsonaren parte hartzea izango dugu.
- Eta azkenik, ekainaren 10ean, oraindik zehazteke dagoen toki batean, ekitaldi sozial bat egingo dugu. 25 urte hauetan zehar lagundu gaituzten pertsona, entitate eta instituzioen topaketak izango dira.

Bukatzeko, 25 urte hauetan zehar izandako presentzia eta leialtasuna eskertu nahi dizuegu. Gure ahotsa izan zarete eta lagundu duzue nafarroako jendarteak aipatu arazo hauen kontzientzia har dezan, gurekin batera prebentzio lana eginez.

Modu berean, eskertu nahi diegu bidaia luze hau eginez gaur hemen egotea ahalbidetu duten pertsona guztiei. Gure lan egiteko moduan sinetsi dutenei. Gorago jo eta hobeki lan egiten lagundu gaituztenei. Eta bereziki, apalagoak izaten eta gure limite, gabezi eta ezjakintasunez jabetzen lagundu digutenei.

Eta bereziki, gure eskerrik onena hainbeste gauza irakatsi diguten pertsona, erabiltzaile, senide eta gertukoei. Bihotz-bihotzez: Esker mila!



NAFARROAKO
GIZAKIA HELBURU
PROYECTO HOMBRE
NAVARRA

Zaragoza Etorbidea 23, Aita Paulen Eraikinean
Tel. 948 291 865 · Fax. 948 291 740
www.proyctohombrenavarra.org
info@proyctohombrenavarra.org

25 urte zugan sinesten | 25 años creyendo en ti

Besterik gabe, zuen asistentziagatik berriz ere gure esker ona berretsiz, zuen esanetara gaituzue prentsaurreko honetan emandako edukien gaineko galderak eta komentarioak egin nahi badituzue.